

Erref.: YLL/Aukeraketa eta Hornikuntza Arloko burua

GUFE-KO PERTSONAK ZUZENTZEKO DEPARTAMENDUKO BURUTZAREN JARRAIBIDE OROKORRA, 2016KO MARTXOAREN 21EKOA. HONEN BIDEZ, LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETAREN ONDORIOZ HUTSIK GERATU DIREN LANPOSTUAK ESKAINTZEKO DEIALDIAK ANTOLATZEKO JARRAIBIDEAK EMATEN DIRA.

2016ko martxoaren 9an, lanpostuak betetzeko lehiaketaren (2015/10/13ko BAOa; 2015/10/20ko oker-zuzenketa) behin betiko adjudikazio-proposamena argitaratu zen.

Lehiaketa hori ebatzi ondoren beharrezkoa da haren ondoriozko lanpostu hutsak nola bete ezartzea, lantokietan laguntza-zerbitzua kaltetu gabe dagozkion langileen atxikipenak egiteko.

Hori horrela, beharrezkoa da lan-poltsak kudeatzeko irizpideak egokitzea langile guztien atxikipena behar den datan eta eran egiteko, lehiaketako langileena zein haren ondoriozko lanpostu hutsak betetzeko deitzen zaien langileena. Ohartarazi behar da lan-poltsak kudeatzeko irizpideetan xedatutako deialdiek ez dutela ziurtatzen honelako prozesuak arrakastaz egitea, asko baitira deiak eta ezinezkoa baita itxaropen guztiak kontuan hartzea.

Ondorioz, Erakundearen Negoziazio Mahaiak 2016ko martxoaren 11n aztertu zuen gai hau, eta Pertsonak Zuzentzeko Departamenduko buruak jarraibide orokor hau eman du gai hori dela eta, lanpostuak betetzeko lehiaketaren mugimenduen ondorioz sortzen diren lanpostu hutsak eskaintzeko deialdiak antolatzeko. Hona hemen nolakoa izango den antolamendu hori:

- Deialdiak apirilaren 4tik aurrera egingo dira, 08:00etatik 15:00etara.
- Gehienez ere deialdi bi egingo dira, eta bien artean ordubete utziko da, lehenengo deialdian ezin bada deitutako pertsona aurkitu.
- Langileak aukeratutako zonifikazioaren arabera egingo da eskaintza; horretarako, langileak aukeratzeko duen zentroa zein den adierazi behar du une horretan; egingo diren eskaintzak lanpostuaren dotazioaren zenbakiaren arabera egingo dira, txikienetik handienera.
- Lanpostuak aukeratzea errazteko, esan behar da eskainiko diren lanpostu hutsak zentro hauetan daudela, eta kontuan hartu behar da, gainera, titularren ezaugarri berezien menpe dauden lanpostuak ezaugarri bereziok amaitu ahala eskainiko direla:

KATEGORIA	ZENTROA	DERRIGORREZKO HE	EZ-DERRIGORREZKO HE
ADINGABEEN HEZITZAILEA	ZABALBURU ETXEBIZITZA	1	1
	FORUAK ETXEBIZITZA	1	
GM-KO GIZAR. TEK.	LOIU-UDALOSTE LZ	2	
	ERREKALDE LZ	1	
	LUSA LZ	1	
	ZUBIETE LZ		1
SUKALDARI-ZERBITZARIA	SAN ADRIAN E.	1	
	DOLARETXE E.		1
OSASUN-LAG.	ELORRIO LZ	4	
	GALLARTA LZ	1	4
	LUSA LZ		1
	BIRJINETXE LZ	2	
	ZUMELEGI LZ	1	
	LEIOA LZ	11	2
	LOIU-UDALOSTE LZ	2	

- Egin beharreko deialdi guztiak amaitzen direnean horren berri emango da, GUFEn iragarki-ohol birtualean jarriko den iragarkiaren bidez.

Bilbon, 2016ko martxoaren 21a

PERTSONAK ZUZENTZEKO DEPARTAMENDUKO BURUA

Sin: Nerea Urien Azpitarte

